

Arduraz jokatzeko ingurumenari buruzko heziketa

Jarduera programa 2005/2006 Bigarren hezkuntza



Paper birziklatuan inprimatua

www.mcp.es/educacion_ambiental/brote3.htm



Mancomunidad
Comarca de Pamplona
Iruñerriko
Mankomunitatea

Ingurumen Heziketako Programa



1 Ingurumen Heziketako Programa

Helbidea: Imaz anaiak, 1
Orduetgia: 08:00etatik 14:30era
Kontsultak:
 ☎ 948 423 194
 ☎ 948 423 285
E-posta:
 ✉ jalzueta@mcp.es
 ✉ mvital@mcp.es
Faxa: 948 423 220
Web orria: www.mcp.es

2 Iruñerriko Mankomunitateko egoitza

Helbidea: Chinchilla jenerala, 7
 31002 Iruña

Dituen asmoak?

Lortzea herritarrek ingurumenari buruzko kontzientzia izan dezatela, baita ingurumena eta horri lotuta dauden arazoetan interesa zein gaur egungo eta geroko arazoak bai indibidualki bai kolektiboki konpontzeko ezaguera, gaitasuna, jarrera, motibazioa eta nahia izan ditzatela ere (Ingurumenari buruzko Heziketaren helburua. Belgradeko Ituna, 1975).

Ingurumenari buruzko esperientzia eta programak sustatzea, Iruñerriatik hurbil dagoen ingurunearen gaineko ezaguera eta analisi kritiko eta kreatiboa izatearren.

Baliabide materialak eta aholkularitza tekniko eta didaktikoa erraztea, irakasle eta ikasleek programak praktikan jarri edo informazio-premiak ase ditzaten.

Eskaintzen dituen zerbitzuak?

- **DOCUMENTAZIO ZENTROA: Kontsultak eta maileguak.**
- **AHOLKULARITZA TEKNIKO ETA DIDAKTIKOA: irakasle eta ikasleei.**
- **MATERIAL DIDAKTIKOA DISEINATU, KOORDINATU ETA ARGITARATZEA.**
- **JARDUERAK**
 - **Bisitak Mankomunitateak kudeatzen dituen instalakuntzetara.** Hautatutako instalakuntzaren funtzionamendua ezagutzea xede nagusi dute, ikasleei ingurumena babesteko ego-kienak diren jarrera eta portaerei buruzko gogoetarako gonbitea luzatzen zaielarik aldi berean.
 - **Gelako tailerrak.** Lan-proposamen dinamiko eta parte-hartzailea, programa bakoitzeko edukiak oro har aztertzen dituen, norberaren ardura, batetik, eta, bestetik, jarrera eta jokabide aldaketa azpimarratuz.
 - **Jardunaldiak.** Instalakuntza baten bisitatik abiatuta, eduki zehatzetan sakondu nahi da, hala sentsibilizazioan nola ohiturak eta jarrerak sortzean arreta berezia jarritz.

Lantzen diren edukiak?

Uraren ziklo integrala. Hornidura eta saneamendua.
Kontsumoa eta hondakinak. Birziklapena eta berreskurapena.
Garraioa eta mugikortasun iraunkorra.
Ingurumenari buruzko heziketa.
Natur eta hiriko ingurumena.

2004-2005eko partaidetzaren emaitzak

Programa	Ikastetxeak*	Ikasleak	Arreta jaso zuten talde kopurua
Ura	34	3.422	143
Hondakinak	13	758	39
Garraioa	8	721	31
GUZTIRA	37	4.901	213

* Iruñerriko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak.

BISITAK INSTALAKUNTZETARA

Mankomunitateak kudeatzen dituen instalakuntzak baliabide gisa jartzen dira ikasle eta irakasleen eskura. Hautatutako instalakuntzaren prozesu, funtzionamendu eta kudeaketa ezagutzea xede nagusi duten irakasleei zuzendua da, ingurumena babesteko egokienak diren jarrera eta portaerei buruzko gogoetarako gonbitea luzatzen zaielarik aldi berean.

Edukia:

Ura programa.
Zaborrak eta birziklapena programa.

Maila:

D.B.H.
BATX.

JARDUNALDIAK

Hasteko, hondakinak arazteko edo tratatzeko instalakuntza bat bisitatuko da. Gero, eduki espezifikokoak jorratuko dira, horren gaineko sentsibilizazioa hedatu eta ohitura eta jokabideak barneratu behar direla azpimarratuz. Jarduera bisitatutako instalakuntzan bertan egiten da, eta goiz osoa irauten du.

Edukia:

Ura programa.

Betebeharrak:

- Iruñerriko ikastetxea izatea.
- Gelan aldez aurretik prestatzea.

Lan-moldea:

- Parte hartzen ari diren irakasleekin biltzea.
- Jardunaldia garatzea.
- Balorazioa.

Maila:

D.B.H.

GELAKO TAILERRAK

Lan-proposamen didaktiko eta parte hartzekoa, eduki zehatz batean sakondu nahi duena, norberaren ardura, batetik, eta, bestetik, jarrera eta jokabide aldaketa azpimarratuz.

Edukia:

Garraioa eta Mugikortasun iraunkorra programa.
Zaborrak eta birziklapena programa.

Betebeharrak:

- Iruñerriko ikastetxea izatea.
- Gelan aldez aurretik prestatzea.

Lan-moldea:

- Parte hartzen ari diren irakasleekin biltzea eta dokumentazioa ematea.
- Jardunaldia garatzea.
- Balorazioa.

Maila:

D.B.H.

SENSIBILIZAZIOA

“Autobusaren magia”

Gelako lana sendotzea du helburu. Magia ikuskizuna eskainiko da hiribusean, eta ibilbide didaktikoa egingo da hirian zehar. Horrela, elkarbizitza, garraio kolektiboaren erabilpen arduratsua eta mugikortasun iraunkorra erraztuko duten edukiak barneratu eta ohiturak sortuko dira, era erakargarrian.

Edukia:

Garraioa eta Mugikortasun iraunkorra programa.

Betebeharrak:

- Iruñerriko ikastetxea izatea
- Gelako tailerretan parte hartzea.

Maila:

D.B.H.

ALDAKETAK IKASTETXEKO PAPER BILKETAN

Mankomunitatea hondakinak biltzeko eredu berria pixkanaka ezartzen ari da, eta eredu berri horrek eragina du ikastetxeetako paper bilketan. Ikastetxean dauden edukiontziak kendu, eta paper bilketa kaleko edukiontzi espezifikokoaren bidez egiten da.

Baliabideak:

- Aldez aurretik, informazio bilera bat egiten da zuzendaritza taldearekin.
- Ikastetxean hondakinak kudeatzeari buruzko aholkularitza.
- Laguntza baliabideak: paperontziak, eranskailuak, papera birziklatzeko tailerra, landatzeak eta kanpainatik eratorritako bestelakoak.
- Bisita Gongorako Tratamendu Zentrora.

Bigarren Hezkuntza

Ura

Hornidura eta Saneamendua Programa



Bisita: Artetako iturburua + “Lupeko urak” Interpretazio Zentroa

Bisita: Artetako iturburua + Interpretazio Zentroa + Egillorko Ur Planta

Bisita: Eugiko urtegia + Urtasungo Ur Planta + Mendillorriko ur-biltegiak

Bisita: Arazuriko araztegia + “Ura ez kutsatzen laguntzen dut” jarduera

Bisita: Arazuriko araztegia + “Saneamendu eta arazketa” Interpretazio Zentroa

Helburua: Instalakuntzaren funtzionamendu eta helburua ezagutzea eta uraren erabilera eta kontsumo arduratsua sustatzea.

Edukiak:

- Ur hornidura eta kontsumoa.
- Ur zikinen saneamendu eta arazketa.
- Arduraz kontsumitzeko jokabide eta ohituak.

Bisiten baliabideak:

- Bideoa edo diaporama.
- Maketak.
- Instalakuntza bisitatzea.
- Bisita batzuek jarduera osagarri bat biltzen dute, azturei, uraren erabilera eragingarriei edo saneamenduari buruz.

Iraupena: Instalakuntzaren araberakoa. Kontsultatu eskaera fitxa.

Parte-hartzaileak: Irakasle bat ikastalde bakoitzeko.

Gehienez: Bi ikastalde (60 ikasle) bisita bakoitzeko. Bisita bat edo bi eguneko, iraupenaren arabera.

Jardunaldiak

Helburua: Eduki espezifikoetan sakontzea.

Iraupena: 3 ordu.

Parte-hartzaileak: Bi irakasle.

Gehienez: 30 ikasle, Artetan.
60 ikasle, Arazurin.

Jardunaldia Artetan

“Lurpeko urak: ingurune fisikoa eta kontsumoa”

Jardunaldiaren baliabideak:

- Artetako iturburua bisitatzea.
- Interpretazio Zentroan jardutea.
- Tailer-gelan esperimintatzea: “Akuifero baten funtzionamendua”.
- Egillorko Ur Planta bisitatzea.

Jardunaldia Arazurin

“Uraren erabilpen eta kutsatzea eta hondakin uren arazketa”

Jardunaldiaren baliabideak:

- Arazuriko araztegia bisitatzea.
- “Saneamendu eta arazketa” Interpretazio Zentroa bisitatzea.
- Interpretazio Zentroan jardutea.
- “Ibaia kutsaturik” jarduera.
- Kontsumo arduratsurako ohiturei buruzko jarduera.

Laguntzarako unitate didaktikoa

“Ur horniketa eta kontsumoa”

Unitateak ondokoa biltzen du:

- Ikasleendako lan-koadernoak.
- Irakasleendako gidaliburua.
- Dokumentazio-karpeta.



Bigarren Hezkuntza

Zaborrak eta birziklapena Programa



Bisita: Gongorako Tratamendu Zentroa + kontsumo arduratsuko jarduera

Noiz: Martxotik aitzina.
Helburua: Gongorako Tratamendu Zentroaren funtzionamendua ezagutu, eta gaikako bilketa eta jokabide egokiak sustatzea, kontsumitzaile arduratsu gisa.

Bisiten baliabideak:

- Ontziak aukeratzeko Planta berria.
- Energia berreskuratzen duen zabortegiaren ikuspegi panoramikoa.
- Maketa eta bideoa.
- Edukien laguntzarako jarduera.

Iraupena: 2 ordu.
Parte-hartzaileak: Irakasle bat ikastalde bakoitzeko. Bi ikastalde (60 ikasle) bisita bakoitzeko.

Bisita: Gongorako Tratamendu Zentroa + jarduera + Garbigunea

Noiz: Martxotik aitzina.
Helburua: Gongorako Tratamendu Zentroa eta hondakin berezien (toxikoak, etxeko hondakin bereziak...) bilketa gunea ezagutzeko.

Baliabideak:

- Gongorako Tratamendu Zentroko bisitakoak.
- E. Leclerc-eko aparkalekuko garbigunea bisitatzea.

Iraupena: 3 ordu.
Parte-hartzaileak: Irakasle bat ikastalde bakoitzeko. Bi ikastalde (60 ikasle) bisita bakoitzeko.

ALDAKETAK IKASTETXEKO PAPER BILKETAN

Mankomunitatea hondakinak biltzeko eredu berria pixkanaka ezartzen ari da, eta horrek eragin du ikastetxean dauden edukiontziak kendu, eta paper bilketa kaleko edukiontzi espezifikoaren bidez egitea.

Baliabideak:

- Aldez aurretik, informazio bilera bat eginen da zuzendaritza taldearekin.
- Ikastetxean hondakinak kudeatzeari buruzko aholkularitza.
- Bisita Gongorako Tratamendu Zentrora.
- Paperontziak, eranskailuak...

GELAKO TAILERRA

“Baliabideetatik hondakineta: kontsumoaren zikloa”

Helburua: Ekoizpen eta kontsumo zikloen ondorioak aztertzea eta hondakinaren arazoa konpontzeko alternatibak baloratzea.

Tailerraren baliabideak:

- Ikasleak berak ekarritako hondakinak
- Jarduera: “Nire kontsumoak arrastoa uzten du”
- Jarduera: “Laguntzen dut 3 Bak egiten”

Iraupena: 1,50 ordu.

Parte-hartzaileak: Irakasle bat ikastalde bakoitzeko.

Gehienez: Ikastalde bat tailer bakoitzeko. Elkarren segidako bi tailer eguneko.

Egunak: Asteko egun guztietan. Goizez zein arratsaldez.

PAPERA BIRZIKLATZEKO TAILERRA

Iraupena: 1,5 ordu.

Parte-hartzaileak: Irakasle bat ikastalde/ikasgela bakoitzeko.

Gehienez: Ikastalde/ikasgela bat tailer bakoitzeko. Bi tailer elkarren segidan.

Egunak: Asteko egun guztiak. Goiz edo arratsaldez.

ZUHAITZAK LANDATZEA ETA PAPERA BERRESKURATZEA (EZKABAN)

Iraupena: 1,5 ordu.

Parte-hartzaileak: Irakasle bat ikastalde bakoitzeko.

Gehienez: Bi ikastalde (60 ikasle) landatze bakoitzeko.

Egunak: Asteko egun guztiak. 2. hiruilekoan soilik.

Laguntzarako unitate didaktikoa

“Garrantzitsua al da sortzen dugun zaborra murritztea?”

Unitateak ondokoa biltzen du:

- Ikasleendako lan-koadernoak.
- Irakasleendako gidaliburua.
- Dokumentazio-karpeta.



Bigarren Hezkuntza

Garraioa

eta mugikortasun iraunkorra Programa



GELAKO TAILERRA

“Iraunkorra al da garraioa?”

Helburua: Garraioak sortutako arazoetara hurbiltzea, proiektzio batetik abiatuta.

Edukiak:

- Mugikortasuna.
- Garraioaren eraginak.
- Garraioaren iraunkortasuna.

Iraupena: 1,50 ordu.

Parte-hartzaileak: Irakasle bat ikastalde/ikasgela bakoitzeko.

Gehienez: Ikastalde/ikasgela bat tailer bakoitzeko. Elkarren segidako bi tailer eguneko.

Egunak: Asteko egun guztietan. Goizez zein arratsaldez.

* Gelako tailerretan parte hartuko duen ikastalde/ikasgela bakoitzari autobusez 60 bidaiaria egiteko moneta-txartel bana emanen zaio.

AUTOBUSAREN MAGIA

“Eskualdeko Hiri Garraioaz bidaiatuz”

Helburua: Edukiak barneratzea, batetik, eta, bestetik, eskualdeko hiri garraioaren bidaiatzen dugunean arau, pertsona eta ingurunearekiko jokabide begirunetsuak ekarriko dituzten ohitura eta jokabideak sustatzea.

Edukiak:

- Hiri garraioaren erabilera egokia.
- Eskualdeko Hiri Garraioa.
- Zirkulazio arazo batzuk antzematea.

Betebeharrak: Gelako tailerretan parte hartzea.

Iraupena: 50 minutu.

Parte-hartzaileak:

Ikastalde/ikasgela bat saio bakoitzeko. Bi saio eguneko, gehienez.

Egunak: Ostiraletan soilik.

Laguntzarako unitate didaktikoa

“Mugikortasun jasangarria. Hiri garraioa Iruñerrian”

Unitateak ondokoa biltzen du:

- Irakasleendako lan-koadernoak.
- Irakasleendako gidaliburua.
- Dokumentazio-karpeta.
- Lan-irteera.
- Soinu eta zaratak biltzen dituen CDa.



LAGUNTZA BALIABIDEAK

“Garraio motxila”

Unitate Didaktikoan proposatutako lan-irteeraren baliabide osagarria. Honakoa aztertze tresna eta baliabideak ditu:

- Garraioaren gaineko analisi espaziala.
- Garraioaren eragina: aire eta hots kutsadura.
- Mugikortasuna eta garraio bideak.

Baliabideak:

- Aire aztertze ekipoa.
- Sonometroa, termometroa eta eskalimetroa.
- Iruñerria eta eskualdeko hiri garraioa erakusten dituen horma-planoak, eta abar.



Eskatzea:

Motxila maileguan uzten da, astebetetz.